



UDAL KIROLDEGIKO TABERNA ETA JATETXEA KUDEATZEKO ETA ZERBITZUA ESKAINTEKO ENKANTEA: BALDINTZA ADMINISTRATIBOEN PLEGUA

1. ARTIKULUA.- EDUKIA

KONTRATUAREN XEDEA: kontratu honen xedea herriko udal kiroldegiko tabernaren kudeaketa eta ustiapena da.

Esleipena lehiaketa bidez egingo da plegua itxiaren sistema bidez.

Hostalariza sektorean izandako esperientzia baloratu da esleipenean eskaintzarik onuragarriena kontutan izan beharrean.

Udalak **425 €**-ko irteera-prezioa ezarri du (BEZa kanpo).

Behin betiko esleipenean, ezarritako kanonaren zenbatekoa udal honen banku-kontuan ordainduko da hilabeteko lehen bost egunen barruan.

Kanon hori urtero eguneratuko da, Nafarroako Gobernuaren onartutako KPlaren arabera

2. ARTIKULUA.- IZAERA JURIDIKOA.-

Kontratu honek izaera administratiboa du, Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeren arabera, eta honela sailkatzen da:

Zerbitzuak ematea, aipatutako legearen 32. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta lege-testu bereko 204. artikuluan eta hurrengoetan garatzen du.

Kontratuak ez du inolaz ere ekarriko administrazio kontratugilearen eta esleipendunaren edo azken honen menpeko langileen arteko lan arloko harremanik.

Udalak beretzat bakarrik gordetzen du baldintza hauek interpretatzeko eskumena, baita esleipenaren ondorioz sinatuko den kontratuaren baldintzak interpretatzekoa ere.

3. ARTIKULUA.- PARTE-HARTZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK.-

Parte hartzeko baldintzak: Hitzartzeko gauza diren pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute enkantean, betiere Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 22. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako debekuren bat ez badute.

Batera parte hartzen duten lizitatzzaileek ere esku hartu ahal izango dute enkantean. Parte-hartze hori agiri pribatu baten bidez gauzatuko da; bertan, borondatea dagoela batera aurkezteko adierazi, lizitatzzaile bakoitzaren partaidetza-portzentajea zehaztu eta ordezkari edo ahaldun bakarra izendatuko da, kontratuak sortzen dituen eskubideak erabili eta betebeharrak betetzeko ahalmenak izango dituen kontratua azkendu arte. Horrek ez du ezertan eragotziko kobratu eta ordaintzeko ahalmen mankomunatuak egotea.





Euskaraz jakitea eta zerbitzua euskaraz emango dela bermatzea. Aurreko hori ezinbesteko baldintza da enkantean parte hartzeko; beraz, baldintza hori betetzen duela frogatzen ez duenak ezin izango du parte hartu enkantean. Hori justifikatzeko, erantzukizun-aitorpen bat aurkeztu ahal izango du. Zerbitzua euskaraz ematea ziurtatu beharko da (barran eta mahaietan ematen den zerbitzua, kartelak, telefono-deiak hartzean...), eta, horretarako, behar adina baliabide izanen du adjudikazio-hartzaileak.

Adjudikazio-hartzaileak uneoro izanen ditu zerbitzuko lanak betetzeko behar diren langileak. Adjudikazio-hartzaileak nahiz horiek kontratatatu ditzaketen langileek nahi eta nahi ez euskaraz jakin beharko dute, eta eskaintzen duten zerbitzua euskaraz emateko gaitasun nahikoa eduki beharko dute; tabernako funtzionamendua euskaraz izango da.

4. ARTIKULUA.- BERMEA.-

Esleipendunak 1.500,00 euroko fidantza jarriko du. Fidantza hori eskudirutan jarri ahalko da, edo bankuko txeke baten bidez edo abal baten bidez, lehendabiziko errekerimenduan kobratu daitekeena.

5. ARTIKULUA.- ENKANTERAKO PROZEDURA.-

Proposamenek kudeaketa- eta ustiapen-plan bat izango dute. Gehienez ere **20 puntu** lortu daitezke.

Kudeaketa-proposamenetan, gutxienez, hauek jaso behar dira:

-Zerbitzuaren planteamenduaren eta garatzeko moduaren deskribapen orokorra (ordutegi zabala, gutxieneko irekiera ordutegitik hasita 8 orduko lanaldia. Ordutegi horrek bat etorri behar du. Kiroldegiko irekiera ordutegiarekin, Kiroldegiko erabiltzaile eta herriko biztanleen zerbitzurako proposamenik egokiena baloratuko da. Kasu guztietan irekitzeko eta ixteko legezko ordutegiak. errespetatu behar dira. (Honela baloratuko da: gehienez ere 10 puntu).

- Produktu-eskaintza (kontsumizioak, menuak, plater konbinatuak, etab.) eta prezioak. (Gehienez ere 10 puntu emango dira).

Ostalaritza-sektorean izandako esperientzia baloratuko da, gehienez **40 puntu**. (10 puntu emanen dira lan egindako urte bakoitzeko)

-Eskaeraren epe bukaera baino lehen 9 hilabete gutxienez Arbizun erroldatua egotea **10 puntu**.-

Proposamen ekonomikoa gehingoz **30 puntu**. Proposamenek eskaintza ekonomiko bat izango dute, hasierako prezioa baino txikiagoa ezin izan daitekeena. Enkantetik kanpo geldituko dira hasierako prezioaren azpitik egindako eskaintzak

Oinarrizko prezioa	1 puntu	3 puntu	5 puntu	7 puntu	9 puntu	10 puntu
--------------------	---------	---------	---------	---------	---------	----------





425€	450.-€	475.-€	500.-€	525.-€	550.-€	575.-€
------	--------	--------	--------	--------	--------	--------

Balorazio-Mahaia eratuko da, eta honako hauek osatuko dute:

- Lehendakaria: Francisco Javier Razquin Flores, Arbizuko alkatea.
- 1.bokala: Ane Lizarraga Beguiristain. Arbizuko Udaleko zinegotzia.
- 2 bokala: Unai Arreche Arbizu, Arbizuko polikiroldegiko kudeatzailea.
- 3 bokala: Mateo Berastegui Astiz, Arbizuko udaleko zinegotzia.
- Idazkaria bokala.- Aintzane Erdozia Razkin. Udal idazkaria.

6. ARTIKULUA.- IRAUPENA.-

Errentamenduak URTEBETEKO iraupena izango du, kontratua sinatzen denetik edo indarrean jartzen denetik kontatuta. Urtero luzatu ahal izango da, gehienez ere LAU urtez, betiere bi aldeak ados badaude.

7. ARTIKULUA.- ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK, ZERBITZUEN KUDEAKETARI DAGOKIONEZ.

- Jendaurrean dauden langile guztiek euskaraz jakin beharko dute ezinbestean. Era berean, establezimenduko erabiltzaileei ematen zaien informazioan euskarari emango zaio beti lehentasuna, eta dokumentu batean beste hizkuntza ofizial bat ere badago, euskarazko testua bereziki nabarmenduko da. Hori guztia egiten da 2. artikuluan ezarritako baldintzaren arabera.
- 1.500,00.-€ kopurua jarri beharko dute, fidantza gisa. Fidantza hori eskudirutan jarri ahalko da, edo bankuko txeke baten bidez edo abal baten bidez, lehendabiziko errekerimenduan kobratu daitekeena.
- Taberna-jatetxea zerbitzua horretarako eraikitako tokietan ematea, zuzenean. Oporraldiak hartu nahi izanez gero, polikiroldegia egutegiarekin bat izanen da itxiera, beti ere abuztuko hilabetea.
- Instalazioak egoera onean mantentzea.
- Euren dagozkien gastuak ordaintzea (ura, zaborra, argindarra, etab.).
- Kontratu honen xede diren ondasunak ez besterentzea, ez eta horietan kargak ezartzea ere.
- Arbizuko Udalak erabilera publikoko eraikinen segurtasunaren eta higiearen gainean onesten dituen araudi, ordenantza eta ediktuek betetzea, baita aplikagarri zaien edozein gairen ingurukoak ere.





- Indarreko lan-legedia betetzea esleipendunaren eta bere zerbitzura dauden langileen arteko kontratu-harremanetan, instalazioa kudeatzeko.
- Lan-arloan indarrean dauden xedapenak betetzea, gizarte-segurantzaren eta laneko segurtasuna eta higieena.
- Esleipendunak nahitaez bete beharko ditu Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean aurreikusitako eskakizunak eta gainerako xedapenak. eskakizunak bete beharko ditu. Osasun Publikoaren Institututik eratorritako eskakizunak bete behar ditu halaber elikagaien manipulatzailerik txartela edukitzea.
- Oro har, entitate kudeatzaileak bete behar dituen eginbehar guztiak betetzea.

8. ARTIKULUA.- INSTALAZIOAN SARTZEA.-

Instalazioa sarbide librekoa izango da herritar guztientzat. Tabernako sarrerako pasilloan ezin izango dira ez kupel, ez mahai ezta aulkiak ere jarri, bide hori libre utzi beharko da gurgildun aulkietan mugitzen direnentzat, haurrentzako aulkixoentzat, etab.

Instalazioko harreran koadro bat egon beharko du, honako hauek adieraziko dituenak:

Edandakoen eta janarien prezioa.

Jendearentzako ordutegia.

Udalak edo beste administrazio batek exijitu ditzaketen jarraibide guztiak. Esleipendunak Askalats ente instrumentalarekin hitzartzen duen kontratuan irekitzeko ordutegia eta lizitatzaileak proposatutakoa jasoko dira (azken horrek puntuazioa igotzea ekarriko dio).

9. ARTIKULUA.- KUDEAKETAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA.-

Entitate esleipendunak instalazioa erabiltzeagatik prezioak proposatuko ditu eta behin aztertuta, Osoko Bilkurari proposatuko dizkio hark onets ditzan. Ezarri beharreko prezioa proposizio-ereduan adierazi beharko du.

10. ARTIKULUA.- ESLEIPENDUNAREN KONTRATU-HARREMAN PRIBATUAK

Zerbitzuaren entitate esleipendunaren ardurakoa izango da instalazioa kudeatzeko hartzen duen lan- edo zerga- izaerako edo izaera zibileko edozein harreman juridikoa edota beste edozein motatakoa, eta horrek ez du inolaz ere ekarriko harreman zuzen edo subsidiarioa ezartzerik Arbizuko Udalarekin ez eta haren merkataritza-sozietatearekin ere (Askalats).





11. KONTRATUA AMAITZEA.-

Sinatzen den kontratua amaitutzat emateko arrazoiak Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko Foru Legean edo kasuan kasuko aplikaziozko legedian ezarritakoak izango dira. Bai eta instalazioak erabilera egokia edo desegokiari lotutako arrazoi partikularrengatik, edota beste edozein arrazoiarengatik.

12. ARTIKULUA.- INSTALAZIOA UDALARI ITZULTZEA.-

Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko Foru Legean ezarritako arrazoiengatik edota Baldintza Plegu honetan ezarritako arrazoi partikularrengatik kontratua amaituko balitz, instalazioetan egindako hobekuntzak Arbizuko Udalarentzat izango dira, baita kontratua indarrean egon den bitartean instalazioaren aurrekontuaren kontura erosi diren ondasun guztiak ere.

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA

